

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BASQUE CULINARY CENTER FUNDAZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2012.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Basque Culinary Center Fundazioaren 2012ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostenak, gainera, Basque Culinary Center Hezkuntza Fundazioaren fiskalizazioa ere besarkatzen du; fundazio hau Basque Culinary Center Fundazioak 2011ko uztailan sortu zuen eta haren Babesle bakarra da. Txostena HKEEren Osokoaren kideek aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu eta bi fundazioen kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten.

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, bi fundazioek 2012ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzazkoa indarreko araudiari jarraiki gauzatu dute, txostenean bertan jaso diren hainbat ez-betetze salbuetsita.

Honela, bada, langileria dagokionez, HKEEk jakinarazi du bai BCC-en, bai Hezkuntzan ere, hurrenez hurren, 15 eta 7 langile kontratatzeke espedienteetan jaso zegoen dokumentazioak ez duela bermatzen hautagaiak hautatzean berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde direnik.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du BCCk hainbat gastu egin dituela eta kontratu txiki modura izapidetu dituela modu zuzenean; alabaina, kopuruak aintzat hartuta, horiek publikotasun eta lehia printzipioak bermatuko zituen prozedura bidez kontratatu behar ziratekeen.

BCCren urteko kontuei dagokienez, HKEEk uste du alderdi esanguratsu guztietan Fundazioaren 2012ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dutela; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere; salbuespena da egoeraren balantzean obra, eraikuntza eta instalazioak ibilgetu modura erregistratu behar ziratekeela 1,7 milioi euroren zenbatekoan, horien gainean aitortutako egiazko eskubidea izaki; baita lagapenean jasotako altzariak ere, 0,3 milioi euroren zenbatekoan; honek guztiak ez du eraginik emaitzen kontuan.

Hezkuntzaren urteko kontuei dagokienez, HKEEK hauen gainean ere aldeko iritzia plazaratu du; salbuespen bakarra da matrikula kontzeptuan 51.533 euroren zenbateko diru-sarrerak 2011n erregistratu izana, 2012koak zirenean; honenbestez, ekitaldi honen emaitza aipatutako diru zenbatekoan balio gutxitua dago.

Halaber, HKEEK barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu kontratazioari dagokion atalean eta beste.